



abegi 'harrera'	«...senarrarekiko abegi ona estaltzen joan zitzaion zenbait herritarri ...»	(75)
abilezia 'trebetasuna'	«...garbian ere astintzeko abilezia ...»	(75)
adabaki 'zattia'	«...beste zenbaiti adabakika bezala entzundakoak kontatu...»	(54)
ahaidegotza 'ahaidekotasuna'	«... ahaidegotzak arakatzeari ekin genion elkarri.»	(54)
ahitu 'agortu, bukatu'	«... ahitua omen nengoen, guztiz trapuzahartua herriratzeko.»	(14)
aidanez 'agi denez,dirudienez,antza	«Zuk, aidanez , ez zenuen zailtasunik ipintzen...»	(108)
aiene 'kexua, erosta'	«...honek ere ongi astindu zizkidan aieneak eta daldarrak.»	(33)
aitzakia 'estakurua, desenkusa'	«...Martzelinaren gana joatea bederatzietako mezaren aitzakiaz ...»	(17)
akuilu 'mendeku aitzakia'	«...urte gogorretarako akuilutzat gorde zion senarrak (...) amarena.»	(49)
amagiarreba 'ezkontidearen ama'	« Amagiarrebaren gela aurretik pasatu nintzenean...»	(41)
antzeman 'igarri'	«...senarra zalantzan bezala antzematen nuenez...»	(15)
arakatu 'miatu, ikertu'	«...ahaidegotzak arakatzeari ekin genion elkarri.»	(54)
artean 'oraindik' (irag.)	«Nik, artean , hainbestetakoa errepikatuko zela uste nuen...»	(20)
ase 'bete'	«...aurkitua nuen bi urtetako antsia aseko zidan bide irekia.»	(56)
astanafarreri '(garuak) gaisotasun arina'	« Astanafarreriak jotako haren aurpegiak...»	(103)
astindu 'jipoitu'	«...garbian ere astintzeko abilezia...»	(75)
atezuan 'tentsioan'	«Mina sentitu nuen daldarkidearen gorputza atezuan bezala askatu zitzaidanean.»	(34)
atximurdura 'txatxumarka, piltzikada'	«... atximurdura leun batzuk sentitu nituen sabelean.»	(34)
auskalo 'batek jakin, nork jakin'	«—Eta zer galdetzen didazu niri? Auskalo! »	(25)
aztailu 'balantza'	«... aztailu bat plaza erdira ekarri eta (...) bertan (...) pisatu zutenean.»	(71)
badaezpadare 'edozer gertaturik ere'	« Badaezpadare jokatu nuen horrela...»	(64)
baikor 'optimista'	«...baina ez zen baikorrena ere hainbestetaraino ausartzen.»	(70)
bakan 'solte, gutxi'	«...eta malko bakan batzuen errainuak irristatu zitzaizkion.»	(37)
baretu 'lasaitu'	«Ez zitzaidan bizkar hezurreko zirrara baretu .»	(12)



bargasta 'txerri emea'	«... bargasta bat irabazi ahal izateko errifak...»	(95)
begirune 'errespetua'	«...apaizaren hitz soilek ez zidaten begirunerik eskaini...»	(42)
behaztoparri 'traba'	«...bideko behaztoparri handiena kendu zidan une hartan...»	(108)
berez 'izatez'	«... berez nahiko kaskarina zenak apustu haiek serio hartzen zituen ...»	(130)
berritsu 'hitzontzia, berbalapikoa'	« Berritsuak zituen begiak (...) sudur tenkor baten gainean.»	(59)
bidetxior 'bide zidorra, bidexka'	«...berdetasun (...) hura zeharkatzen zuten bidetxiorretan .»	(61)
biki 'bikoitza, biritxia'	«...aroztegikoaren anaia bikia zen.»	(90)
bitxi 'harri bitxia'	«...herdoilduko zaizkizun urrezko bitxi distiratsuak.»	(96)
blaitu 'busti-busti egin'	«...berehala blaitu zen toaja ere...»	(135)
borborrean 'bor-bor jario'	«...odola hasi zitzaion borborrean (...) deitoragarria...»	(135)
buruko 'almohada'	«...ohe gaineko estalkia, mantak, burukoa eta maindireak (...) bota ondoren...»	(12)
daldar 'dardara, ikara mugimendua'	«...honek ere ongi astindu zizkidan aieneak eta daldarrak .»	(33)
daldarkide 'dardarakidea, ikarakidea'	«Mina sentitu nuen daldarkidearen gorputza atezuan bezala askatu zitzaidanean.»	(34)
danbateko 'kolpea'	«Etxeko atearen danbatekoak esnatu ninduean...»	(11)
deitoragarri 'negargarria'	«...odola hasi zitzaion borborrean (...) deitoragarria ...»	(135)
dema 'proba'	«... dema , ahari jokoa, harrijasotzea...»	(62)
dirrindari 'dirrin-dirrin dagiena'	«...zintzilik zegoen telefono dirrindaria hartu nuen.»	(115)
egosgor 'konbentzitzeko zaila'	«...jende hau ez da dirudien bezain egosgor ...»	(44)
egotzi 'bota, aurpegiratu'	«...baina isilune haiek maitasun kunplituari egozten nizkion...»	(33)
erabat 'guztiz'	«...malkoak oraindik erabat lehortu ez zitzaizkion garaian...»	(18)
erdibana 'erdi eta erdi'	«...erdibana jotzen zituzten irabaziak, erdibana galerak ere.»	(82)
errainu 'distira, leinuru'	«...eta malko bakan batzuen errainuak irristatu zitzaizkion.»	(37)
errementari 'su arotza (herrero)'	«...entzuten ziren errementari baten edo danbatekoek...»	(61)
errestatzaile 'bultzatzailea, zirikatzailea'	«...apustueta joku antolatzaile, dema saiotako errestatzaile ...»	(81)



erretxin 'substantzia itsaskorra'	« Erretxin usain eta zerraren deiadarrera sartu zen Domingo.»	(89)
errukarri 'gaixoa, gizarajo'	«—Non egin behar du lo, bestela, errukarri horrek?»	(22)
esamesa 'zabaldutako gezurra'	«...eta hasieran esames bakoitza, huskeria bakoitza...»	(14)
estalki 'burusia'	«...ohe gaineko estalkia , mantak, burukoa eta maidireak (...) bota ondoren...»	(12)
estalpe 'babesa, aterpea'	«...ezpain isilak samindura handien estalpe zirela...»	(75)
etekin 'probetxua'	«...lana utzi behar izaten zuenetan, etekina garbia ikusten zuen ...»	(89)
etsipen 'desesperazioa'	«Kolpe batean irentsitako etsipena .»	(11)
ezbai 'zalantza, duda'	«...nire senarrak nirekiko halako ezbai ezkutukoren bat gordetzeak...»	(14)
ezbehar 'zoritxarra'	«—Banekien inoiz ezbeharren bat gertatuko zela...»	(102)
ezuste 'ustegabekoa'	«...senarraren ibilerak inoiz ekarriko zion ezusteak baizik.»	(87)
farfail 'brodatuak dituen'	«... farfail zuri batez estalirik...»	(59)
ferekatu 'laztandu, xerak egin'	«...harri tzarra bere begi lerdenez ferekatzen ari balitz bezala.»	(27)
gajo 'gaixoa, gizarajoa'	«...nola joango zen, ba, gajoa ?»	(48)
gautxori 'parrandaria'	«...uztaileko harririk gogorrena baino okerragoa dela seme gautxoria .»	(38)
gexal 'indar gabea'	«Txipristin gexal baina alaiari haunditzen (...) joan zitzaion...»	(61)
gibel 'atzea, ostea'	«...leiorantz joan, pertsianaren gibelean aire bizi eta eraginkorra usaindu...»	(11)
gihartsu 'indartsua'	«Mutil bizkorra eta gihartsua zen Josefinaren seme hura.»	(103)
goitiar 'zerutiarra'	«...maitaserrea halako izpiritu goitiar batez jantziz.»	(95)
hamaika 'ugari, asko'	«...hitz berdinez osatutako hamaika hitz-joko desberdin.»	(53)
hankartaratu 'amodioa egin'	«...inoiz hankartaratzea lortu ez zuten...»	(14)
harez gero 'ordutik hona'	«...hamar urte igaro dira harez gero ...»	(13)
harri 'txingorra, inetasia'	«...uztaileko harririk gogorrena baino okerragoa dela seme gautxoria.»	(38)
hasperen 'zinkurina'	«...aldapak hasperenka igo eta aldapa beherak arnasestuka jaisten zituen...»	(56)
hausnartu 'gogoetak egin, pentsatu'	«...eta isilduko zitzaizkidanak hausnartu nituen...»	(11)



Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
herabe 'hitsa, tristea'	«...trikitilariiek beren eskuko soinu herabeari ekin ziotenean...»	(54)
herdoildu 'ugertu, oxidatu'	«... herdoilduko zaizkizun urrezko bitxi distiratsuak.»	(96)
hilaur 'haur galtzea'	«...hiru hilabetetako hilaurra bertan bota omen zuen arte.»	(48)
horratio 'ordea, berriz'	«...ez zidaten, horratio , galtza barren bustien atsegina suntsitu!»	(39)
huskeria 'garrantzi gabekoa'	«...eta hasieran esames bakoitza, huskeria bakoitza...»	(14)
inausi 'sastarra'	«... inausiak erre ohi zituen tokira eta bertan su eman...»	(41)
inozo 'leloa, tentela'	«...egonezin ulergaitz eta inozoa antzematen nien emakumeei...»	(32)
irriki 'gogo bizia'	«...beregana jotzeko irriki izan nuen arren...»	(24)
irristatu 'labandu, irrist/laprast egin'	«...eta aulkiaren barniz horixkatuan irristatu zen...»	(12)
isuri 'bota, erori'	«Malkorik ez isurtzea erabakia nuen bezalatsu erabaki nuen...»	(43)
izerdi patsetan 'busti-busti, blaiturik'	«Hamar minutu barru han ziren (...) izerdi patsetan ...»	(86)
jabetu 'bereganatu'	«...ez zen herritarrik nire gorputzaz jabetu (...) batak bestearen gorputza miatu genuen arte.»	(32)
karkaxa 'erruxa, kerrua'	«...lerde eta karkaxa ubelduak ahotik...»	(135)
kaskarin 'txoriburua'	«...berez nahiko kaskarina zenak apustu haiek serio hartzen zituen...»	(130)
kemen 'adorea, kuraia'	«Ez nuen gosaltzeko kemenik izan...»	(25)
kirio 'nerbioa'	«...hezetasunak joak nizkian kirio guztiak...»	(124)
kukildu 'kikildu, mekotu, beldurtu'	«Ez haiz, bada, emakume puttazuringa batek kukiltzen duten horietakoa izango?»	(58)
labain 'bustia'	«Hasperenka ari ziren haren ezpain labainak ...»	(59)
lazgarri 'mingarria, beldurgarria'	«...baserriko su ikaragarri eta haien oihu lazgarriez ere.»	(15)
leje 'leia, izotza (?)	« Lejea ere gustura sentituko litzatekeen hartan...»	(131)
lekuko 'testigua'	«Nahiago dut inolako lekukorik gabe negar egin.»	(18)
lerde 'adurra'	«... lerde eta karkaxa ubelduak ahotik...»	(135)
lerden 'dotorea, ikusgarria'	«...harri tzarra bere begi lerdenez ferekatzen ari balitz bezala.»	(27)
maindire 'izara'	«...ohe gaineko estalkia, mantak, burukoa eta maindireak (...) bota ondoren...»	(12)



marisukaldeskeria 'esamesa'	«...hari buruzko marisukaldeskeria guztiak zabaldu genituen...»	(23)
marmarrear 'esamesaka, ahapeka'	«... marmarrear irten zen jendea Josefinaren taberna ilunetik.»	(135)
mataza 'korapilola'	«...eta ez nekien zein hari matazari hel.»	(55)
miatu 'ikertu, aztertu'	«...ez zen herritarrik nire gorputzaz jabetu (...) batak bestearen gorputza miatu genuen arte.»	(32)
minbera 'sentimendu tristea'	«...hiltzat jotzen genituen minberak berpizte hori?»	(44)
muino 'mendiska'	« Muino batean dagoen eliza zero grisetik zintzilik...»	(19)
nagi 'zabala'	«...bultzatu ninduenean ohe nagi (...) batean...»	(35)
nahinukeria 'txakur ametsak'	«...baina gera zaitez nahinukeriatan ...»	(22)
nare 'barea, lasaia'	«...errainu narea eskaintzen zion (...) aurpegiari.»	(59)
nondik-norako 'xehetasunak: jatorria...'	«...ozenki eta irainka galdetu zidan nire nondik-norakoaz ...»	(15)
okozpe 'okotz behelaldea'	«...senarrari okozpean maindirea tolestean zion bitarte mingarrian.»	(73)
ordeka 'zelaia, zabalunea'	«...argitasunaz berotutako herrirako sarreran zegoen ordeka guztiz berdeak...»	(61)
oreka 'ekilibria'	«Ozta-ozta gorde ahal izan nuen goardasolaren oreka beltza.»	(20)
ozenki 'boz goraz'	«...pentsatu nuen eta baita ozenki esan ere...»	(12)
ozta-ozta 'juxtu-juxtu'	« Ozta-ozta gorde ahal izan nuen goardasolaren oreka beltza.»	(20)
pean 'azpian, menpean'	«...prestatu banaiz kondizio honen pean izan da...»	(32)
piura 'itxura'	«...eta eguraldiaren piura ez da txantxetako...»	(18)
printza 'errainua'	«...goizeko eguzki printzak bete-betean sartzen ziren...»	(59)
puttagorringa 'zirrikakorra'	«...bere mingain puttagorringaz botatakoa gogoratu nuen...»	(21)
samurtasun 'eztitasuna'	«—Bilobengana bideratzen dugun samurtasuna ...»	(76)
sargori 'bero handia, sapa'	«...Domingok ez zuela sargoria lagun izango...»	(71)
sona 'entzutea, arrakasta'	«Garai hartan hasi zen sona handiko apustu guztiz xelebreak egiten.»	(82)
suar 'sutsua'	«...behatz suar haietan tinkaturik zutitu zitzaidan...»	(34)
taiutu 'egituratu'	«...okerdura zamatsua ikusi nion haren bizkar taiutu eta tenteari ...»	(20)



tente 'zuzen, artez'	«...okerdura zamatsua ikusi nion haren bizkar taiutu eta tenteari... »	(20)
tinkatu 'itsatsi, lotu'	«...behatz suar haietan tinkaturik zutitu zitzaidan...»	(34)
tramankulu 'trastea'	«...pitzatutako baldeek eta aspaldiko garaietan bertan pilatutako tramankuluek... »	(130)
trapuzahartu 'baliogabetu'	«...ahitua omen nengoan, guztiz trapuzahartua herriratzeko.»	(14)
txipristin 'zipristina, txiplistada'	« Txipristin gexal baina alaiari (...) haunditzen joan zitzaion...»	(61)
tzar 'handi-handia'	«...harri tzarra bere begi lerdenez ferekatzen ari balitz bezala.»	(27)
ubeldu 'more, odol koloreko jarri'	«...lerde eta karkaxa ubelduak ahotik...»	(135)
une 'eretia, liparra, momentua'	«...aulki bakarra senarraren erroparik gabe ikusi nuen unetik. »	(11)
urtu 'indargabetu, akabatu'	«...adinari ez zegokion lanetan hustu eta urtu zela...»	(15)
usteak ustel 'usteak ezerezean gelditu'	«...baina usteak ustel direlako esaerari ez zaio arrazoirik falta.»	(39)
xurgatu 'zurrupatu / eralgi'	«Baina senarrak berehala xurgatzen zizkion irabazi guztiak.»	(74)
zamatsu 'astuna, pisutsua'	«...okerdura zamatsua ikusi nion haren bizkar taiutu eta tenteari...»	(20)
zeharo 'guztiz, erabat,	«...buelta asko eman zizkioat buruari eta zeharo posible duk.»	(91)
zihotarako balio 'sebotarako, ezertarako balio ez'	«...Kornelioren ahariak ez zuela zihotarako ere balio ikusteko.»	(83)
ziri 'gezurra'	«...isiltzen bazaizu hobe; bestela, sartuko lizukeen ziria... »	(38)
zirrara 'sentsazioa'	« Zirrara zorrotz batek hoztu zidan une batez bizkar hezurra.»	(12)
zuritu 'desenkusatu, justifikatu'	«...ongi dakit bere burua zuritu nahian ibili zitzaidala.»	(118)